

Triaden Inbertsioak

JAIN-ANDREOK,
FRANZ JOSEPH HAYDN!

ORAINGO HONETAN 1767
URTEKO SONATA SOL
MAIORREN EKARRI DIGU.



OOH! IKUS
DITZAGUN!

ESKERRIK ASKO ARRERAGATIK.
KONPOSIZIO HONETAN HAINBAT
TRIADA ERABILTZEN DITUT.

HEMEN DAGO BAT: DO, MI ETA
SOL NOTAK DITU. DO MAIORREN
TRIADA DA! OSO ONDO.

ESKERRIK ASKO. IKUSTEN DUZUE
NOLA DAUDEN NOTAK **SAKABANATUTA**,
ETA EZ HIRUDUNETAN PILATUTA? HALA
ERE, TRIADA IZATEN JARRAITZEN DU.

BESTE HONEK SOL, SI ETA RE
DITUENEZ... SOL MAIORREN TRIADA DA!
BAINA SOINU DESBERDINA DU
NOLABAIT.

ARRAZOIA **BAXU** BEZALA ERABILTZEN
DEN NOTAN DAGO, AKORDEKO **HIRUDUNA**
HAIN ZUZEN... HORI GERTATZEN DENEAN
AKORDEA **LEHEN INBERTSIOAN** DAGO.

LEHEN INBERTSIOA? ETA NOLA
DEITZEN DA BA **OINARRI-NOTA**
DAGOENEAN BAXUAN, IKUSI DUGUN
LEHENENGO AKORDEAN BEZALA?

HORRI **OINARRIZKO**
ANTOLAERA DERITZO.

ETA BESTE HAU RE, FA ETA
LA-REKIN RE MINORREN TRIADA
DA BAINA... **BIGARREN**
INBERTSIOAN!

HORI DA! BAXUAN DAGOEN
NOTA AKORDEKO **BOSTUNA**
BAITA.

BERAZ, AKORDE BAT **OINARRIZKO**
ANTOLAERAN, **LEHEN INBERTSIOAN** EDO
BIGARREN INBERTSIOAN DAGOEN ESATEN DUGUN
GAUZA BAKARRA **BAXUAN DAGOEN**
NOTA DA?

ZAILA DA SINISTEA NOLA
ALDATU DAITEKEEN HAINBESTE
AKORDEAREN SOINUA **BAXUKO**
NOTAREN ARABERA.

HAIN ZUZEN!
ETA BAKOITZAK
BERE **IZAERA**
BEREZIA DU.

BAI, EZTA?
HARRIGARRIA
BENETAN.

